



artikulu nabarmenak artículos destacados



Otsaila



FALCÓN, Laia eta M^a José Díaz-Aguado. Relatos audiovisuales de ficción sobre la identidad adolescente en contextos escolares. Nerabeak ikus-entzunezko fikziozko kontakizun ugariren protagonista eta ikusle dira, eta horietan erreferentziak bilatzen dituzte, euren nortasuna eraikitzeko. Kontakizun horiek alfabetizazio mediatikorako erabil daitezke. Ikerketa honetarako nerabeen eskola-bizitzari buruzko hiru Europar kontakizun hautatu dira, generoak, kodea keta balioak kontrastatzeko: “Física y Química” telebista-seriea eta “Harry Potter y la Orden del Fénix” eta “La clase” filmak. Emaitzek aditzera ematen dutenez, kontakizunen artean bat datozen elementuak daude (bikote- edo adiskidetasun-harremanen garrantzia), baina baita aldeak ere (etorkizunera begiratzea edo prozesu horretan pentsamenduak edo irakasleek duten balioa). Ondorioen arabera, hiru kontakizunak egokiak dira alfabetizazio mediatikorako eta nerabeek izan nahi dituzten balioez eta aurki ditzaketen arazoez jabetzeko.

[Comunicar: Revista científica de Comunicación y Educación](#), 42, XXI, p. 147-155



Pellicer Ibarra, Carmen. El emprendedor, ¿nace o se hace? Cómo educar el talento emprendedor Ekintzaile-sena ikasgeletan sartzen ari da. Ikasle batzuek ekintzaile-sena dute eta beste batzuek landu behar dute, eta horretarako lagungarria da ekina izatea, lidergoan konfiantza izatea eta autonomia izatea. Ekintzaile-senean hezteak metodologia aktiboak eskatzen ditu, eta, hartara, irakaslearen eta ikaslearen paperak trukatzeko. Gaitasun hori sustatzeko, ekintzaile-proiektuak jartzen dira martxan, eta horretarako beharrezkoa da edukiak zorrozki hautatzea, ikaskuntza kooperatiboa, zerbitzu-ikaskuntzako sareak, eginkizun exekutibo eta sortzaileetan trebatzea eta ebaluazio-prozesu zorrotza.

Revista Padres y Maestros, nº 355, enero 2014, p. 6-10



Bejar, Manuel. Una mirada sobre la educación, neuroeducación. Neurozientzia hezkuntzari aplika dakioke, irakaskuntzan eta ikaskuntza cognitivo eta emozionalean eragiten duten burmuineko prozesuak zeintzuk diren jakiteko bidea ematen baitute. Neurozientziaren aplikazio horri neurohezkuntza deritzen, eta bertan funtsezkoa da neurohezitzailea, hau da, ezagutza neurologikoak —burmuinaren plastizitateari nahiz ikuspuntu fisiologiko-emozionalari buruzko ezagutzak— ikaskuntza hobetzeko darabiltzan hezkuntzaren profesionala.

Revista Padres y Maestros, nº 355, enero 2014, p. 49-52